

Kaixo,

Oargi Mendi Elkartearen abenduaren hasieratik aurrera 2023eko federatu txartelen tramitazioak egiten hasiko da.

Txartelaren eskaera egiteko, ondoko orrian zure datuak idatzi eta Laboral Kutxaren kontuan dirua sartu. Ondoren, elkartean aurkeztu betetako orria eta diru sarreraren ordainagiria.

Internet bidez federatzeko aukera ere badago, oargimendi@gmail helbidera bidalita.

Transferentziaren ordainagiria federatu behar duen pertsonaren izen eta abizenak izan behar ditu.

Aurten zuen federatu txartela mugikorrean izan dezakezue Euskal mendi federazioaren aplikazioan.

<https://emf.eus/Post?id=1609>

Aurten bazkide kuotetan aldaketak egin ditugu, onuradunek (etxe berean bizi diren federatuek eta pyrenaika bakarra jasotzen dutenak) 10€-koa izango da kuota 20€ beharrean eta 65 urtetik gorakoek orain arte ez zuten kuotarik ordaintzen urte honetatik aurrera 10€ ordainduko dituzte.

Besteek infantil eta gazteek ez dute bazkide kuotarik ordainduko.

2023 urtetik aurrera tarjeta autonomikoarekin bakarrik (FEDME gabe) deskontua edukiko duzu Asturias, Nafarroa, Aragoi eta Cataluinako federazioek gestionatzen dituzten mendiko aterpeetan

[www.correspondenciarefugios.org](http://www.correspondenciarefugios.org)

Luzapena bakarrik ordaindu behar da federatu txartela egin ondoren luzapen bat egiten baduzu.

Txartela etxea bidaltzea nahibadezu 1€ gehio gehitu beharko duzu eta esan etxera bialtzeko.

Jakinarazten dizuegu, federatuen prezioen barne dagoela 20€ euroko bazkide kuota. Beraz, Oargiko federatu oro Oargi Mendi Elkarteko bazkide da.

Bulegoko ordutegia: astelehena eta osteguna 19:00etatik 20:30etara.

Bestalde, gogoratu nahi dizuegu liburutegi zabal bat daukagula, bertan mapak, liburuak, gidak (eskalada, arroilen jaitsiera...) etb. daudela bazkideen eskuragarri.

Ekintza desberdinak egiteko materiala alokatzeko aukera ere badago (kranpoiak, pioletak, erraketak, neoprenoak, arnesak, kaskoak, etb.).

Urtean zehar mendi elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Agur bero bat.

OARGI MENDI ELKARTEA

**[www.oargi.org](http://www.oargi.org)** 688698642 mugikorra [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org)